

Itxaro Borda

Alonsenfans

E

z dakit nori irakurri diodan eskubideak erdiestearekin, emazteok emakumeagoak bihurtu beharko genukeela. Baina nago ez ote gaituen bilatzen dugun hondar mugetaraino eraman feminitate horrek eredu maskulinoetan are gehiago gatibatzen eta halaz gizartearen bortitzaren menperago jartzen. Modelo orokorra alabaina gizonarena da, patriarkatuarena, oraindik aita, seme eta anaien hegalpean atxikitzen gaituena.

Ikusten ditugu telebistetan, berezitasun erraldoi direla, zurubi sozialean hupatzen diren emazteei buruzko erreportaiak. Emakume hauek aldi berean hiperfemininoak eta neoliberal gogorak dira. Miresgarriak. Gizonen helburuak dauzkate, edozein baldintzetan aberastea eta boterera heltzea alegia. Lortzen duen gure ahizpa, gizonetzko kideentzat subliminalki ehizi bat da etsaia ez denean, seduzitzalea, desiraren akuilatzailea, eskainia eta agitu litekeenarekiko konplize mutu. Ere mu horretan ordea, nola daiteke emaztea gizonarekin konpetentzian, ahalmen eta kalifikazio maila berean, egiturak ardurenean gizonetzkoa aukeratzen duenean?

Nehoz ez dira agertzen pantaila koloretzuetan, maioria horrela doalarik, soldata anitzez apalagoekin, haurrak altxatzeko denbora erdi edo herenez lanean ari direnak. Esklabo gisa erabiliak hots, langile dretxo minimoekin, nagusien tiraniak gauzatuak eta umeak eritzen zaizkienean ere bulegoko atarietan kuzkurtzen direnak, egunaren ez galtzeko. Eta ez du, Ingrid Betancourt anderearen libratzearen *show* mediatikoaren garaian, frantses parlamentuak aho batez bozkaturiko lanaren inguruko legedia antisozialak egoera hobetuko. Pobrezia berriaren ekileetan hiru ehun euroko erretreta eskuratzen duten emazteak azaltzen dira karraketan eske, edo zakar ontzietan jarri zahar karrakan. Telebistenztat ez bide dira hain glamurki femininoak.

Jendartearen maskulinizazio baten parean gaudela iruditzen zait. Gizon zuria, kristaua, klase ertainekoa eta heterosexuaren moldea dabil airean. Dagoeneko ez da tokirik inorentzat. Kristalizatze hori itxuratzen du ederki Sarkozy batek, Carla Brunirekin ezkondu aurretik, emezale



GAIZKA IROZ

arrabiatuaren potret-robota hedatzera uzten zuelarik prentsa *people*tan.

Ez da harrigarria honenbestez, logikoa baino, genero biolentziak lau urteotan ehuneko hogeita hamarrez gora egin duela irakurtzea giza eskubideen lurralde ohian. Sozietatea da biolentzia, neoliberalismoak funtsean indarra goستن duelako ahulena, mehatxu eta arerio erara seinatu eta baztertuz. Gure hizkuntzen kasua da, atzerritarrena, emakume eta umeena. Erritualki egiaztatzen ahal ez den bortxa, etxeetako sukaldean intimitatean garatzen da, haurren eta emaztearen kontra, biolentzia, alor askotako zerbitzu publikoak bezala, pribatizatu bailitza.

Trucker bat baizik ez eta feminitateaz mintzatzeko gaizki plazatua naiz, baina uste dut feminitaterako eskubidea xuxurtatzen dugun oroz, zapalduagoak suertatzen garela, maitatuak izan nahiaren ahuhen soilaz maskulinitatea kultura bakun finka-

Jendartearen maskulinizazio baten parean gaudela iruditzen zait.

Gizon zuria, kristaua, klase ertainekoa eta heterosexuaren moldea dabil airean. Dagoeneko ez da tokirik inorentzat.

Kristalizatze hori itxuratzen du ederki Sarkozy batek, Carla Brunirekin ezkondu aurretik, emezale arrabiatuaren potret-robota hedatzera uzten zuelarik prentsa *people*tan

tzen eta onartzen dugulako. Gizarte bat ezin da ibili bakarrik arrakoi, botere, diru eta lehiaren ondotik, justiziaz eta berdintasun ezberdinaz amestu gabe. Menturaz, feminitatearen ordeztasuna aldarrikatzeko genuke, ez gaitzatela emakumetzat har dretxoak eztabaida eta banatzekotan, soilik jendetzat: *jendea jende* zioen aita zenak ironiaz auzoarekin kezatzen zenean. Bestela agudo, lanaren eta kulturaren sozializatze zurrunbiloez kanporatuko gaituzte, emekeriaren miraila hautsien aitzinera zorrimin kalitzera igorritz. ■